



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2015eko MAIATZAREN 5ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2015eko maiatzaren 5ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi
Leire Otegi Elola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - **2015eko martxoaren 31an egindako ohiko bilkuraren akta.**
 - **2015eko apirilaren 28an egindako ez-ohiko bilkuraren akta.**
- 2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. **Fakturak eta ordainketak.**
- 4. **Alkizako Mendikoetxe sukaldeko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera, X.A.**
- 5. **Alkizako Agerre baserrian eraikin gehigarri bat egiteko obra baimena eskaera, J.H.**
- 6. **Alkizako Arritza behekoa baserrian hainbat lan egiteko obra baimena eskaera, M.L.O.**
- 7. **Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 8. **Lehen Berandegui baserriari loturik zeuden Suspaitzaga, Elorzulo eta Algorri terrenoetatik, azken hau segregatzeko baimena eskaera, I.Z.**
- 9. **Alkizako kokaturik dagoen Algorri terrenoa erosteko proposamena, hala bada.**
- 10. **Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren arteko Lankidetzahitzarmenaren onespena, Hernio Gazume KBE barneko udal**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

sailetan udalak lortutako EJKO laguntzen kudeaketa egiteko, hala bada.

11. Beste batzuk.

12. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

- 2015eko martxoaren 31ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.
- 2015eko apirilaren 28ko ez-ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuei adierazten die ez direla Alkatetza Ebazpenik izan aurreko Udalbatzatik.

HIRUGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

TIENDA VOZIP	238,51
AUDAX	214,41
AUDAX	195,86
AUDAX	128,40
AUDAX	42,93
AUDAX	38,24
AUDAX	42,58
MOVISTAR	66,68
MOVISTAR	79,46
AUDAX	256,07
AUDAX	79,01
TOLOMENDI	150,00
TOLOMENDI	150,00
BIDATEK	471,90



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

RECAMBIOS IBARRA	196,56
QUISER	69,47
TOLOSALDEA GARATZEN	10.856,12
GAZTEZULO	22,00
LAU HAIZETARA	930,85
CALPARSORO INDUSTRIAL	21,51
KOPI&EUSKO TONER	12,71
KEY-LAN	19,48
SEIKIN	96,80
DIONISIO ORMAZABAL	21,78
IZADI	152,94
BERRI LANTEGIA	68,53
CORREOS	4,81
CORREOS	1,33
ALAIKI	28,39
GASOLEOS ALKORTA	12,10
ARGITU ASESORES	140,48
SOLRED	119,67
EUSKALTEL	115,50
EDURNE BENGEOA	181,50
PAULO AZKUE	103,59
BULEGOAK	145,35
AUDAX	223,08
ULAHI	526,35
AUDAX	740,72
MOVISTAR	79,03
MOVISTAR	66,82
BERRI LANTEGIA	49,09
TINDU MARGOAK	30,10
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	41,02
LUIS FERNANDEZ OSET	3.431,56
EKAIN ARTE LANAK	3.616,69
TOLOMENDI	13.500,00
EBA ERKIZIA	2.222,91

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **40.002,89** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LAUGARREN PUNTUA

ALKIZAKO MENDIKOETXE SUKALDEKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, X.A.

Ikusirik X.A. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Mendikoetxe sukaldeko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2015 eko apirilaren 15ean, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO MENDIKOETXE SUKALDEKO TEILATUAN KONPONTZE LANAK EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

X.A. jaunak, Mendikoetxe sukaldeko teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako idatziaren arabera, konpontze lanak eraikin nagusiaren atzealdean itsatsirik dagoen gorputzeko teilatuan egingo dira, estalduraren azalera 29m² izanik.

Konponketa, gaur eguneko teila, aurretik zaharkitutako teila misto batez ordezkatzea izango da. Lan hauen aurrekontua, 2.785,82€-koa da (BEZ-a gabe).

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen kanpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

Mendikoetxe Alkizako lur hiritargarran kokaturik dago, bereziki “UEU8 hirigintzako gauzatze unitatean”. Arau subsidiarioen arabera eraikina katalogatua dago eta 1997ko urriaren 22ko 5781 kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen erabakiaren arabera, A motako Balizko Arkeologia guneen zerrendan sartua dago (eraikinaren hormez barruko esparrua hartzen duena, alegia).

Alkizako lur hiritargarriko UEU8 fitxaren irizpide nagusia eraikinaren mantentzea da.

2/2006 Lurzoru legearen 199 artikulua arabera, Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Horretarako, behar diren kontserbatze-eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko.

Hau honela izanik, eskarian azaltzen diren lanak legeztagarriak direla informatzen dut.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Lanak amaitzean, eraispin-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- X.A. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Mendikoetxe sukaldeko teilatuan konpontze lanak egiteko obra baimena ematea.

BIGARRENGOA.-Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO AGERRE BASERRIAN ERAIKIN GEHIGARRI BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.H.

Ikusirik J.H. jaunak eginiko eskaera, non Alkizako Agerre baserrian eraikin gehigarri bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2015eko maiatzaren 4ean, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ ALKIZAKO AGERRE BASERRIAN ERANSKIN BAT EGITEKO ESKAERARI TXOSTENA

J.H.A. jaunak, Agerre baserriari zabalpen bat egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontu eta eranskinaren plano batzuk aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Aurkeztutako idatziaren arabera, zabalpena baserriaren iparraldeko aldean, mendiruntz dagoen etxearen zatian egin nahi da eranskinaren neurriak 6,70mx3,70m izanik (okupazioa 24,79m²). Itxiturentzat erabiliko diren materialak bloke raseatua eta teilaz estalitako egurrezko teilatua izango dira. Lanen aurrekontua BEZ-a gabe 8.642,52 €-koa da.

Agerre baserria Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrin kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera baserriak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik. Baserria nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotua dago.

Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikuluaen arabera, egun dauden mota guzietako eraikin eta instalazioen zabalkuntza obrek eta hauen kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik egon behar dira.

Hiri antolaketako arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren 1.5.b artikuluaen arabera (2006-ko BOG 210), erabilerarik esleitu gabeko lur ez urbanizagarrian, etxebizitzetara loturiko txabolak onar daitezken, 2.5 artikulua esaten duena betetzen bada.

2.5 Art. Eraikin osagarriak

Txabola motako eraikin osagarriak baimenduta daude, ondoko baldintzekin, azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat:

Txabola horiek zehaztu gabeko erabilerako lur ez urbanizagarrian soilik eraikitzen ahalko dira, eta aurretik bertan dagoen etxebizitza bati ala ustiatzen duen baserri bati lotuta.

a)Ustiatzen duten baserrientzat:

Lursail hartzailea eta baserria lotuak eta zatiezinak izan beharko dira.

Nekazaritza-tresnak gordetzeko eta ganadua aldi baterako gordetzeko erabiliko da.

Batazbesteko malda % 20 baino apalagoa duten lursailetan ezarri beharko dira.

Baimena eskatzen duenak txabola ezarri nahi duen lursailaren jabe izan beharko du.

Baserrian aurretik beste eraikin osagarriak egonez gero, eraikuntza berriak horiei itsatsita ezarri beharko dira, emaitza bateratua izateko.

Lursail-mugetatik 10m-ra egon beharko dira gutxienez.

Kanpoko akaberak iraunkorrak izan beharko dira, zuriak edo harri naturalezkoak, paramentu bertikaletan; teilatuak % 35eko malda izango du gehienez, eta gorria izango da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eraikina baserriari itsatsita badago, teilatua teilazkoa izan beharko da.

Okupazio-azalera ez da 50m² baino handiagoa izan beharko, eta altura librea 3m-koa izango da gehienez.

b) Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiari lotuak ez diren etxebizitzak. Okupazioak ez du 25m² baino gehiago hartu beharko. Aurreko eraikinari itsatsita eraiki beharko dira, teilatuaren hegal bat luzatzeko Altura librea 3m-koa izango da, gehienez.

Kanpoko parmentuak igeltsuzkoak izango dira, kolore zurikoak; teilatuenak, berriz, % 35eko malda izan beharko du, eta bere teilak eraikin nagusikoaren antzekoak izan beharko dira.

Kanpoko arotzeria eraikin nagusikoaren antzekoa izango da. Nekazaritza-tresnak edo eskortako animaliak gordetzeko erabiliko dira.

Eranskinaren altuera 3m baino gehiagokoa da puntu altuenean, baina zabalpena teilatuaren hegal bat luzatzean lortzen denez eta eraikinaren osotasunarekin bat egiten duenez onargarria dela usate dut.

Konpoko akabera harrizkoa edo txuria izan beharko da.

Aurkeztutako lanak, aurreko baldintzak betetzen badituzte, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Lanak amaitzean, eraispin-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.”

Gaia azterturik, bertaratuek, Joxerra Hernandez zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoz

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- J.H. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Agerre baserrian eranskin bat egiteko obra baimena ematea.

BIGARRENGOA.-Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ALKIZAKO ARRITZA BEHEKOA BASERRIAN HAINBAT LAN EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.L.O.

Ikusirik, batetik M.L.O. andreak eginiko eskaera, non Arritza behekoa baserriaren teilatuan tximinia jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2015eko maiatzaren 6an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO ARRITZA BEHEKOA BASERRIAREN TEILATUAN TXIMINIA JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*M.L.O.U. andreak, Arritza behekoa baserrian tximinia berri bat eta egurrantzat tximeneta egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Arritza behekoa baserriaren berokuntza instalazioa hobetzeko jarri nahi den pellet galdararentzat, tximinia berri bat ireki nahi da teilatuan. Instalazioaren aurrekontua BEZ-a gabe 1.658,39€-koa da.

Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikularen arabera, egun dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik daudela ulertzen da.

Arritza behekoa baserria Alkiza erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrian kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera baserriak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.

Alkizako araudian ez dira honelako instalazioak debekatzen eta etxearen hobekuntza bat izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Lanak amaitzean, eraispén-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.”

Ikusirik, bestetik, M.L.O. andreak eginiko eskaera, non Arritza behekoa baserrian aterpe bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2015eko maiatzaren 4ko Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“ALKIZAKO ARRITZA BEHEKOA BASERRIAN ATERPE BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*M.L.O.U. andereak, Arritza behekoa baserrian aterpe bat egiteko baimena eskatzen du, lanen batzbesteko aurrekontua, plano eta argazki batzuk aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako idatziaren arabera, zabalpena baserriaren atarian egin nahi da eranskina edo aterpearen neurriak 12mx4m izanik (okupazioa 48m²). Aterpea egurrezko 4 zutabe eta 4 habez osatua egongo da. Ez da estalkiaren bukaerako materiala azaltzen. Materialaren aurrekontua BEZ-a gabe 1.497,33e-koa da. Aterpearen aurrekontua, teila eta guzti **3.037,33€** koa izan daitekeela estimatzen da.*

Arritza behekoa baserria Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarrin kokaturik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera baserriak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik. Baserria ez dago nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotua.

Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikularen arabera, egun dauden mota guzietako eraikin eta instalazioen zabalkuntza obrek eta hauen kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik egon behar dira.

Hiri antolaketako arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren 1.5.b artikularen arabera (2006-ko BOG 210), erabilerarik esleitu gabeko lur ez urbanizagarrian, etxebizitzei loturiko eraikin osagarriak onar daitezke, 2.5 artikulua esaten duena betetzen bada.

2.5.Art. Eraikin osagarriak

Txabola motako eraikin osagarriak baimenduta daude, ondoko baldintzekin, azaroaren 24ko 82/1998 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat:

Txabola horiek zehaztu gabeko erabilerako lur ez urbanizagarrian soilik eraikitzen ahalko dira, eta aurretik bertan dagoen etxebizitza bati ala ustiatzen duen baserri bati lotuta.

.../...

b)Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiari lotuak ez diren etxebizitzak. *Okupazioak ez du 25m² baino gehiago hartu beharko. Aurreko eraikinari itsatsita eraiki beharko dira, teilatuaren hegal bat luzatzek moduan,*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

eta emaitza eraikuntzaren osotasunarekin harmonian egoteko moduan. Altura librea 3m-koa izango da, gehienez.

Kanpoko paramentuak igeltsuzkoak izango dira, kolore zurikoak; teilatuak, berriz, %35eko malda izan beharko du, eta bere teilak eraikin nagusikoaren antzekoak izan beharko dira.

Kanpoko arotzeria eraikin nagusikoaren antzekoa izango da. Nekazaritzatresnak edo eskortako animaliak gordetzeko erabiliko dira.

Eraiki nahi den estalpearen okupazioa, araudiak markatzen dituen 25m² baino handiagoa da. Estalkiak puntu hau bete beharko du derrigorrez.

Estalpearen malda, %35 baino gutxiagokoa da, baina eraikinaren zabalpena teilatuaren hegala luzatzean lortzen denez eta sarreraren babes moduan egiten denez, onargarria dela uste dut.

Teilatuaren teilazko akabera etxearen teilatuaren antzekoa izan beharko da.

Hau honela izanik, 25m² ko okupazioa duen aterpearen aurrekontua, 1.581,94€-tan finkatzen da.

Beraz, aterpeak aurreko baldintzak betetzen baditu, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean”.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- M.L.O.U. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Arritza Behekoa baserriaren teilatuan tximinia jartzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENGOA.- M.L.O.U. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Arritza Behekoa baserrian aterpe bat egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

baldintzak betetzen badira.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

OARGI MENDI ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA

Ikusirik Oargi Mendi Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, 2015eko ekainaren 13an ospatuko den T3T(Tolosaldeko 3 Tontorrek)-eko lehen edizioaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

Ikusirik aipaturiko iraupen luzeko lasterketa honetan, partehartzaileak Alkizako herrian izango duela dagokion kontrola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Oargi Mendi Elkarteari 200 eurotako diru-laguntza ematea, datorren 2015eko ekainaren 13an ospaturko den T3T, iraupen luzeko mendi lasterketaren antolakuntzaren finantzazioan laguntzeko.

BIGARRENA: 200,00.- eurotako gastua onartzea.

HIRUGARRENA: Oargi Mendi Elkarteari jakitera ematea, urte bukaeran gastuen kitapena aurkeztu beharko duela Udaletxe honetan.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri Oargi Mendi Elkarteari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

LEHEN BERANDEGUI BASERRIARI LOTURIK ZEUDEN SUSPAITZAGA, ELORZULO ETA ALGORRI TERRENOETATIK, AZKEN HAU SEGREGATZEKO BAIMENA ESKAERA, I.Z.

Ikusirik I.Z.S. eta N.Z.I. andreak eginiko eskera, non lehen Berandegui baserriari loturik zeuden "SUSPAITZAGA, ELORZULO ETA ALGORRI" terrenoetatik Algorri terrenoa segregatzeko baimena eskaera egiten duen.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik lehen Berandegui baserriari loturik zeuden terrenoen deskribapena ondorengoa dela:

.../...

b)El terreno castañal llamado "SUSPAITZAGA", que confina por Norte, con terreno de la casería llamada Iribeiti; por Este, con el de Bengoetxea; por Oeste, con el de Basarte y María Antonena, y por Sur, con el de María Antonena; contiene con descuento de un camino que le atraviesa en su parte alta noventa y siete áreas.

c)El terreno castañal llamada ELORZULO, confinante por Norte y Este, con terreno de la casería llamada Araeta; por Oeste, con el de Perurena, y por Sur, con camino carretil público; contiene cincuenta áreas y veintitrés centiáreas.

f)Un trozo de terreno erial y peñascal llamado ALGORRI, procedente de los pertenecidos que fueron del Caserío Otamendi-azpikoa, de cabida de quinientas ocho y tercia posturas, equivalentes a ciento sesenta y siete áreas y setenta y cinco centiáreas, que linda por Este, con el terreno llamado Mendiolako-Txurru antes, hoy de Peru, de Don Jose Mugica, y por Sur, Norte y Oeste, con terrenos de la villa antes, hoy de la villa y caserío Lete.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.Z.S. eta N.Z.I. jaun/andreak eginiko eskaera onestu, hau da lehen Berandegui baserriari loturik zeuden "SUSPAITZAGA, ELORZULO ETA ALGORRI terrenoetatik", guztira 31.498 m² dituztenak Algorri terrenoa, 16.775m² dituen, segregatzeko baimena ematea, ondoren Alkizako Udalarari saltzeko, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan daudenez. Finka matriza, hau da, Suspaitzaga eta Elorzulo terrenoak 14.723 m²-rekin geldituko direlarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri I.Z.S. eta N.Z.I. jaun/andreari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ALKIZAN KOKATURIK DAGOEN ALGORRI TERRENOA EROSTEKO PROPOSAMENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela, Gipuzkoako Foru Aldundiko



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ateratako diru-laguntza baten barruan, Ernio Gazume Kontserbazio eremu bereziko gunearen barruan dauden terrenoak erosteko.

Ikusirik I.Z.S. jaunak interesa dutela Ernio Gazume barruan dagoen terreno bat saltzeko, konkretuki ALGORRI terrenoa, 16.775m² metro dituelarik. Alkizako Udalak hektareako 5.000 euro ordaintzen ari da eta terreno jabea diru kopuru honekin ados dago.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, I.Z.S. eta N.S.I. jaun/andrearen jabetzakoa den ALGORRI terrenoa erosteko onespina ematea, 8.387,50 eurotako kopuruan.

BIGARRENGOA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jauna ahalmenu, erabaki hau gauzatzeko dagozkion dokumentuak sinatzeko.

HAMARGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA ETA NATURTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, HERNIO GAZUME KBE BARNEKO UDAL SAILETAN UDALAK LORTUTAKO EJKO LAGUNTZEN KUDEAKETA EGITEKO, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren arteko Lankidetzahitzarmena prestatu dela, Hernio Gazume KBE barneko Udal sailetan, Udalak lortutako Eusko Jaurlaritzako laguntzen kudeaketa Naturtzaindiak egiteko. Erabaki honi atxikitzen zaiolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Naturtzaindiaren arteko Lankidetzahitzarmena onestea, non Hernio Gazume KBE barneko Udal sailetan Udalak lortutako Eusko Jaurlaritzako laguntzen kudeaketa egingo duen Naturtzaindiak.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez jauna ahalmenu Naturtzaindiarekin aipaturiko lankidetzahitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Naturtzaindia-ri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BESTE BATZUK

11.1. GARAIKOETXEA BASERRIKO TXAKOLINDEGIAREN JARDUERARAKO DOKUMENTAZIOAREN AZTERKETA, X.U.

Ikusirik, X.U. jaunak Garaikoetxea baserriko txakolindegiaren jardueraren aurretiazko komunikazioa egiteko, Garazi del Rey ingeniariak sinatutako jarduera proiektua eta ziurtagiria aurkezten du.

Ikusirik 2015eko maiatzaren 5ean, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO GARAIKOETXEA BASERRIKO TXAKOLINDEGIAREN JARDUERAKO DOKUMENTAZIOARI TXOSTENA

X.U.A. jaunak, Alkizako Garaikoetxea baserriko txakolindegiaren jardueraren aurretiazko komunikazioa egiteko, Garazi del Rey ingeniariak sinatutako jarduera proiektua eta ziurtagiria aurkezten du. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako txakolindegiaren jardueraren aurretiazko komunikazioari obra amaierako dokumentazioa falta zaio.

Jarduerarekin hasteko ondorengo dokumentazioa ekarri beharko da udaletxera:

- *Lanak bukatuta daudela ziurtatzen duen agiria lanen zuzendariak izenpetua dagokion lanbide elkargoen oniritziarekin.*
- *Eguneratutako kokapeneko kartografia planoak, eraikinaren inguruko instalazioekin (bai paperean eta bai formatu digitalean)*
- *Lanaren benetako kitapena, zuzendariak izenpetua dagokion lanbide elkargoaren oniritziarekin.*
- *Eraikinaren argazkiak.*
- *Eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak.*
- *Eraikinaren obra amaierari dagokion jarduera proiektua.*

**Udalak egiaztatuz gero datu, adierazpen edo dokumentu garrantzizkoaren bat zehaztugabea edo faltsua dela, edo indarreko legeek eskatzen dituzten baldintzak ez direla betetzen, arauak xedaturiko espedientea izapidetu ondoren, eskubidea erabiltzeko edo jardueran aritzeko debekua ezar lezake, gertaeren berri duen unetik beretik, izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboez gain.”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: X.U. jaunari jakitera ematea, aurkeztutako Txakolindegia jardueraren aurretiazko komunikazioari obra amaierako dokumentazioa falta zaiola, Udal Aholkulari Teknikoak 2015eko maiatzaren 5ean eginiko txostenean jasotzen dena. Beraz, jarduerarekin hasteko aipaturiko txostenean eskatutako dokumentazioa Udaletxe honetan aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Erabaki honen berri X.U. jaunari ematea.

11.2.ALKIZAKO MUINOZABAL ETXEAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK ETA ETXEKO INGURUETAN ATERPE BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.I.

Ikusirik A.I. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Muinozabal etxearen teilatuan konpontze lanak eta etxeiko inguruetan aterpe bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2015eko maiatzaren 2an Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO MUINOZABAL ETXEAREN TEILATUAN KONPONTZE LANAK ETA ETXEKO INGURUETAN ATERPE BAT EGITEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

*A.I.andereak, Muinozabal etxearen teilatuan konpontze lanak egiteko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua aurkezten duelarik. Etxearen inguruetan etxeiko beharrak betetzeko aterpe bat egiteko baimena eskatzen du ere, lan hauen aurrekontu, eta eraikinaren planoak aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

Aurkeztutako idatziaren arabera, Muinozabal etxeiko teilatuaren konponketa, gaur eguneko teilan azpian plaka ondulatua sartzea izango da, lanen aurrekontua, 5.022,50 €-koa izanik (BEZ-a gabe).

*Aterpea, Alejandro J.Fernandez arkitektoak 2000 urtean sinatutako planoen arabera egin nahi da, neurriak 7mx3,75m izanik (okupazioa 26,25m²). Aurrekontuan, aterpea egurrezko habe eta pilarez osatua egongo dela ikusten da, eta teilatuaren bukaera teilazkoa izango da. Lan hauen kostua BEZ-a gabe 4.571,85€-koa da. Guztira **9.594,35€**, beraz.*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Muinozabal etxea Alkizako lur ez hiritargarran kokaturik dago, bereziki Erabilerarik Esleitu Gabeko lurrean. Arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik. Eraikina ez dago nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi bati lotua.

- *Teilatuari buruz:*

Alkizako Hiri antolaketako 6º artikulua, egun dauden mota guztietako eraikinen konpoaldeko itxuraren aldaketek hirigintza lizentzia behar dutela esaten du.

Alkizako lur ez hiritargariaren araudiaren 3.2 artikulua arabera, mota honetako teilatuen akabera, zeramikazko teilak ala txapa konformatu eta lakatu gorria izan beharko da.

Beraz, eskarian azaltzen diren teilatuaren konpontze lanak Alkizako araudiarekin bat datozenez, legeztagarriak izango dira.

- *Aterpeari buruz*

Alkizako 2006-ko Hiri antolaketako arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren 1.5.b artikulua arabera, erabilerarik esleitu gabeko lur ez urbanizagarrian, etxebizitzetara loturiko txabolak onar daitezke.

Hau honela izanik, usteategi bati loturik ez dagoen etxe batentzat eraikin osagarriak arautzen dituen 2.5.b artikulua bete beharko da.

2.5. Art. Eraikin osagarriak

Txabola motako eraikin osagarriak baimenduta daude, ondoko baldintzekin;

*b) Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiari lotuak ez diren etxebizitzak. **Okupazioak ez du 25m² baino gehiago hartu beharko.** Aurreko eraikinari itsatsita eraiki behako dira, teilatuaren hegal bat luzatzeko moduan, eta emaitza eraikuntzaren osotasunarekin harmonian egoteko moduan. Altura libre 3m-koa izango da, gehienez.*

Kanpoko paramentuak igeltsuzkoak izango dira, kolore zurikoak; teilatuak, berriz, %35eko malda izan beharko du, eta bere teilak eraikin nagusikoaren antzekoak izan beharko dira.

Kanpoko arotzeria eraikin nagusikoaren antzekoa izango da. Nekazaritza-tresnak edo eskortako animaliak gordetzeko erabiliko dira.

2.000 urtean, aterpea eraikitze baimena eskatu zen, baina indarrean zegoen araudiaren arabera, ez zen legeztagarria eta ukatu egin zen. Gainera, zati bat egina zegoela egiaztatuz, ezponda funtzioa betetzen zuen pareta ezik, gainontzekoa botatzea agindu zen.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaur egun euste horma eta inguruak duen itxura ikusirik, aterpea eraikin nagusitik baztertzea eta ezpondaren kontra egitea onargarria dela uste dut beti ere aterpearen azalera eraikigarria 25m²-koa bada.

Beraz, aurreko baldintzak betetzen badira, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

**Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.*

**Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean."*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA.- A.I. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Muinozabal etxeko teilatuaren konponketa lanak egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- A.I. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Muinozabal inguruan aterpe bat egiteko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

HIRUGARRENA.-Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

11.3. ELTZAURPE ETXEAREN EKIALDEKO PATIOAN PERGOLA BAT JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, G.C.

Ikusirik G.C. andreak eginiko eskaera, non Eltzaurpe etxearen ekialdeko patioan pergola bat jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Jon Umerez alkatearen abstentzioarekin, gehiengoz, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENENGOA.- G.C. andreak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Eltzaurpe etxearen ekialdeko patioan pergola bat jartzeko obra baimena ematea. Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

BIGARRENAGOA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunari ematea.

**11.4.ALKIZAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
INGURUMENENKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO
DEPARTAMENTUAREN ARTEKO ERANSKINAREN ONESPENA,
ALKIZAKO UDALARI UDALETXEAREN ESTALKIA BERRITZEKO
BEHARREZKO LANAK GAUZATZEAGATIK FORU ALDUNDIKO
INGURUMENENKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUAK
EMANGO DION DIRU LAGUNTZAREN BALDINTZAK ARAUTZEKO**

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta lurralde antolaketako departamentuak igorritako eranskina, non Alkizako Udalari Udaletxearen estalkia berritzeko beharrezko lanak gauzatzeagatik Foru Aldundiko ingurumeneko eta lurralde antolaketako departamentuak emango dizkion 55.000 eurotako diru laguntzaren baldintzak arautzen diren. (Eranskina atxikitzen da).

Ikusirik Alkizako Udalak aztertu duela Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta lurralde antolaketako departamentuak igorritako eranskina.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako departamentuaren arteko eranskinaren onespena, Alkizako Udalari Udaletxearen estalkia berritzeko beharrezko lanak gauzatzeagatik Foru Aldundiko ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako departamentuak emango dion diru laguntzaren baldintzak arautzeko.

BIGARRENA: Aipaturiko eranskina sinatzeko, Jon Umerez Urrezola Alkatea-Lehendakari jauna ahalmentzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiaren ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako departamentuari ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMABIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

12.1. OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Osasun publikoaren aldeko mozioa aurkezten dela, non ondorengo dioen:

“Iragan abenduan, Osasun Saileko arduradunek, Guillermo Viñegra Sailburu ordeak, Rafael Uribarren Gipuzkoako osasun arduradunak eta Iñaki Berraondok (Aseguramendu eta kontratazio sanitarioko zuzendaria), Tolosaldeako alkateon ordezkari bati, OSI, Eskualdeko osasun arreta antolakuntza integrala, aurkeztu zieten.

Aurkezpen honen bidez, 2015arekin batera, OSla martxan jarriko zela iragarri zuten eta honen bidez Tolosaldeko osasun arretak hobekuntzak izango zituela esan ere bai.

OSlak Tolosaldean gauza gutxi aldatuko ditu, arazoa ez baita OSla ezartzea, osasun zerbitzu publikoan klinika pribatu bat egotea baizik.

Klinika pribatuak, ezinezko egiten du zerbitzu integral eta koordinatu bat izatea:

- *Nola integratu bi sistema, baten eta bestearen arteko helburuak eta lanerako erak desberdinak izanda. Mila bider adierazi bezala, sistema publikoak herritarrei zerbitzu unibertsala eta kalitatezkoa ematea du helburu, sistema pribatuak berriz, irabazi ekonomikoak. Ondorioz, klinikak herritarren osasunarekin negozio egiteko bitarteko guztiak erabiliko ditu bere enpresa jarduerari ahal duen errentagarritasun handiena ateratzeko. Horretarako, pertsonal ratio txikiagoak edota bestelako neurriak hartuz. Eta neurri horiek kalitatean eragina dute.*
- *Nola integratuko dira bi sistemak, besteak beste, programa informatikoak ez badaude oraindik orain bateratuta.*

Udal honen ustez, OSI honen aurkezpena, klinika pribatuaren legitimazioa eta onarpena gauzatzeko beste pauso bat da. Beste pauso bat, sistemaren pribatizazioaren bidean.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Eskualde honetako OSI egoki bakarra, gainerako eskualde guztietakoa bezala, gestio eta arreta publiko integrala, %100ekoa, duena izan behar du.

Legealdi oso bat daramagu udal ordezkariok, eta beste eragile batzuk oraindik denbora gehiago, berdina adierazten: Osasun Zerbitzu publikoaren beharra eta honen erakusle Tolosaldean buruturiko, onarturiko eta antolaturiko:

Manifestazio, firma bilketa, mozio, adierazpen, agerraldi e.a.

Honen aurrean EJko Osasun Saila, honen guztiaren aurka agertu da, eta Tolosaldeko osasun zerbitzuaren pribatizazioa inposatzen jarraitu du. Udal ordezkari, eragile eta herritarron gehiengoaren nahiari bizkar ematen jarraitu du.

Sarri adierazi moduan, Tolosaldean egiten ari direna, esperimentu bat da, pribatizazioaren esperimentua. Zerbitzu unibertsal eta publiko bat gutxi batzuen negozio bilakatzeko froga.

Sistema publikoan sinesten dugu, sistema publikoa delako osasun arreta hobereana eskaintzen duena, inori bizkar ematen ez diona eta benetan denona dena.

Ez dugu beste inon baina gehiago nahi, baina ezta gutxiago ere, berdina, gure eskubideak, besteenak adina balio dutelako, osasun sistema publikoa nahi dugu.

Eta hau gauzatzeko ezinbestekoa da bertako eragileen iritzia jaso eta kontutan hartzea. Udala horretarako prest dago, sistema publiko horren eraikuntzan, antolaketan, parte hartzeko, lanerako, ez ordea OSI publiko-pribatu batetako organo parte hartzailetara joan eta inposaketa hau legitimatzeko.

Inoiz ez da berandu hartutako erabaki okerrak zuzentzeko, Madrident gertatu bezala adibidez. Tolosaldeko bizilagunen osasuna dago jokoan, eta horrek edozein hitzarmenek baino balio handiagoa du.

Honen aurrean Alkizako Udalak eskatzen du:

- *Gainontzeko eskualdeetan bezala, gurean ere osasun zerbitzu publikoa bermatzea, gestio publikoa %100ean oinarri izango duena.*



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- 2011ko azaro aurretik anbulategietan eskaintzen ziren espezialitate zerbitzu guztiak berriz ere bertan ezartzea.
- Klinikaren publikotasuna gauzatzeko ekinbideak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari hastea eskatzea.
- *Mozió hau Eusko Legebiltzarra osatzen duten talde parlamentarioei, Osasun Sailburuari eta Gipuzkoako BBNNetako talde politikoei igortzea.*”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Osasun publikoaren aldeko mozió bere osotasunean onesten du.

12.2. ERAKUNDE ADIERAZPENA, HOMOFIARIAREN ETA TRANSFIARIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNERAKO (MAIATZAK 17)

Ondoren AMNESTY INTERNATIONAL-ek aurrekzturiko adierazpena irakurtzen da, non ondorengoak dioen:

“Kontuan izanik gizon-emakume guztiak aske eta duintasun eta eskubide berberak dituztela jaiotzen direla, eta estatuek saihestu egin behar dituztela sexu-orientazioagatiko, genero-identitateagatiko eta genero-adierazpenagatiko indarkeria nahiz gorrotoa eta errespetatu egin behar dituztela emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioak;

Aintzat hartuta Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna (EZPNI) eta giza eskubideen nazioarteko legeria sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzko gaietan aplikatzeko Yogyakarta Printzipioak (2007);

Aintzat hartuta, halaber, Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseiluaren 17/19 Ebazpena, 2011ko ekainaren 17koa, giza eskubideei, sexu-orientazioari eta genero-identitateari buruzkoa, eta Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioaren 2011ko azaroaren 17ko txostena (Leyes y prácticas discriminatorias y actos de violencia cometidos contra personas por su orientación sexual e identidad de género);

Kontuan hartuta Amnesty Internationalen txosten hauek: Amor, Odio y Ley. Despenalizar la homosexualidad (2008), Cuando el amor es delito. Penalización de las relaciones sexuales entre personas del mismo sexo en el África Subsahariana (2013) eta Por ser quien soy. Homofobia, transfobia y crímenes de odio en Europa (2013);



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Nahigabea adieraziz homosexualitatea oraindik legez kanpoko delako 80 herrialdetan (horietako 36 afrikarrak) eta heriotza-zigorraz zigortzen dutelako Afganistanen, Brunein, Iranen, Mauritanian, Pakistanen, Saudi Arabian, Sudanen, Yemenen eta Nigeriako eta Somaliako estatu batzuetan;

Alkizako Udalak:

1. Kezka sakona adierazi nahi du Amnesty Internationalek dokumentatu dituen kasu batzuegatik. Kasu horiek argi erakusten dute homosexualitatea kriminalizatu egiten dela, homofobiagatik edo transfobiagatik egindako krimenak zigorrik gabe geratzen direla eta gayek, lesbianek, bisexualek, transexualek, transgeneroek eta intersexualek tratatu txarrak jasotzen dituztela. Honako hauek dira:
 - **KAMERUNEN, JEAN-CLAUDE ROGER MBEDE** kontzientzia-presoiari "homosexualitatea eta homosexualitate-saioa" leporatuta ezarritako hiru urteko espetxe-zigorra. 2011ko martxoaren 2an atxilotu zuten, eta 2012ko uztailaren eman zioten baldintzapeko askatasuna, baina Yaundeko Apelazio Gorteak berriz espetxeratzeko agindu zuen 2013ko abenduan. Tragikoki hil zen, 2014ko urtarrilean.
 - **HEGOAFRIKAN, NOXOLO NOGWAZA** aktibista lesbianaren hilketa. 2011ko apirilaren 24an, bortxatu, eta hil arte kolpatu zuten, Kwa Theman (Gauteng) (poliziaren 635/04/2011 zenbakidun kasua).
 - **TURKIAN, AHMET YILDIZ**en hilketa. Gay aitortua, tiroz hil zuten Üsküdarren (Istanbul), 2008ko uztailaren 15ean. Iritzi orokorraren arabera, "ohorearen" izenean egindako hilketa izan zen.
 - **BULGARIAN, MIHAIL STOYANOV**en hilketa. 2008ko irailaren 30ean, basatiki kolpatu zuten, hil arte, Sofiako Borisova Garden parkean. Hilketaren arrazoia: haren sexu-orientazioa (erasotzaileek uste zutena).
 - **BIELORRUSIAN, IHAR TSIKHANYUKUN** homosexualaren kasua. Poliziak galdeketa egin zion 2013ko urtarrilean, Lambdako Giza Eskubideen Zentroa erregistratzen saiatu zirenean. Kolpatu egin zuten, eta mehatxuak eta abusuak pairatu zituen gay izateagatik. Haren zauriak ez zituzten dokumentatu, eta tratatu txarregatik jarri zuen salaketa ez dute ikertu.
2. Indarrez gaitzesten du lesbianen, gayen, bisexualen, transexualen, transgeneroen edo intersexualen aurkako indarkeria eta diskriminazio oro;
3. Gizon-emakumeak beren sexu-orientazioagatik edo genero-identitateagatik diskriminatuzeko, auzipetzeko eta zigortzeko bidea ematen duten edo eman dezaketen lege guztiak indargabetzeko eskatu



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

nahi du;

4. *Sexu bereko pertsonekin sexu-harreman baimenduak (egiazkoak edo ustezkoak) izateagatik atxilotutako edo zigortutako pertsona oro berehala aske uzteko eskatu nahi du;*
5. *Justizia-administrazioko edozein mailatan sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako diskriminazio oro debekatzeko eta ezabatzeko beharrezko neurri guztiak har daitezela eskatzen du, izan legegintzakoak, administraziokoak eta beste edozein arlotakoak;*
6. *Sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako eskubide-urraketa guztien salaketak eta txostenak dagozkien agintariak bizkor eta inpartzialtasunez ikertuko dituztela bermatzeko eskatzen du, baita egileak kontuak ematera eta epaimahai baten aurrean agertzera behartzeko ere. Ildo horretan, adierazpen honetako 1. puntuan aipatuta ageri diren kasuak nabarmendu nahi ditu;*
7. *Sexu-orientazioa eta genero-identitatea (izan egiazkoak edo ustezkoak) estatu guztietan "gorroto-krimenak" eragin ditzaketen ezaugarri babestuzat sar daitezela eskatu nahi du;*
8. *Eskatu nahi du, halaber, poliziako, komunikabideetako, osasun arloko eta irakaskuntzako profesionalei prestakuntza eskain diezaietela sexu-aniztasunari eta gizon-emakume ororen giza eskubideei buruz, LGBTI kolektiboko kideenak barne, eta prestakuntza hori ikasketen programa ofizialetan sar dezatela;*
9. *Giza eskubideen defendatzaileak xaxatzeari uzteko eskatu nahi du, eta babes egokia bermatzeko sexu-orientazioari eta genero-identitateari lotutako giza eskubideak defendatzeagatik arriskuan daudenentzat;*
10. *Eskumena ematen dio Udalako Alkateari, hitzarmen hau bidaltzeko Kameruneko, Hegoafrikako, Turkiako, Bulgariako eta Bielorrusiako gobernuetara Espainian dituzten enbaxaden bitartez. "*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Amnesty International-ek aurkezturiko adierazpena, Homofobiaren eta Transfobiaren aurkako Nazioarteko eguna (maiatzak 17), bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.30 etan amaituzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)